



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Osteguna
2007-11-29
V.URTEA 1.300. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Seaska Haurreskola berriaren inaugurazioa etzi egingo dute

VILLABONA 51 haur daude egun Urdapilleta etxe eraberrituan matrikulatuta, eta 9 hezitzaile ari dira lanean

EKITALDIA Txan magoak ikuskizuna eskainiko du, eta ondoren egingo dute inaugurazio ekitaldi nagusia >2



N. URBIZU

MERTXE EGIGUREN
KORRIKALARIA

«Donostiako Maratoia zer zen ikusi nahi nuen»

TOLOSA Eskualdeko lehen emakume bezala sailkatu zen maratoian >6



N. URBIZU

JOSEBA JAUREGI
KORRIKALARIA

«Parte hartu ahal dut, ez baitaukat inolako arazorik»

TOLOSA Gizonezkoetan eskualdeko lehena izan zen Donostiako Maratoian >6



Oina oina oina oina oina. SINADURA

TXEKIAKO TXOTXONGILOEI LEIHOAK ZABALIK ARANBURUN

TOLOSA Ikusgai dago 'Txekiar Txotxongilora Leihoa' erakusketa; goizetan ikastetxeetako gaztetxoeren bisita izaten du; erakusketaz gain, Titirijairen baitan ikuskizun ugari daude >4-5

Kultur Astea antolatu dute bihartik igandera

Larraul » Haurrak izango dira protagonista lehenengo ekitaldietan, beraiantzako merienda eta jokoak prestatuko baitira

ERREDAKZIOA

Larraulgo Kultur Astea bihar eta igandean bukatuko da. Biharko haurrentzako ekitaldiekin hasiko da. 17:00etan merienda egingo dute Katillutxulo elkartean eta ordu berean hasik odira plazan haur jolasak. 18:30ean bideo emaldia emango dute Kultur Etxean. Eguna amaizteko, 21:00etan bertso afaria Katillutxulon, Sorozabal eta Mendiluzerekin.

Etziko lehen ekitaldian ere haurrak izango dira protagonistak. 10:00etan eskulanak egituko auzerak izango dute. 15:30ean mus txapelketa Katillutxulon. 17:00etatik 19:00etara erakusketa. 18:00etan *Astobathipodromoan* ipuin kontaketa Kultur Etxean. 19:30ean, Alkizako Amixuri kantuzaleekin kantu-poteoa. 21:00etan afari herrikoia Herriko Ostatuan.

Igandean 09:30ean elkartuko dira mendi irteera egiteko, herriko mugarrak ezagutzuz. 16:00etan gazte eta gaztetxoek eskupilota erakustaldia frontoian. 16:30etik 18:00etara dokumentu zaharren eta biziklea zaharren erakusketa. 18:00etan talo eta gaztain jatea Katillutxon.

II. Errebote Eguna egingo dute etzi

Villabona » Pilota eskolako gazteek joko garbiko partida dute eta Behar-Zanakoak Luzeaz Gazteren aurka ariko dira errebotean

ERREDAKZIOA

Behar-Zana kirol elkartek II. Errebote Eguna antolatu du etziko. Kirol ekitaldiak goizeko 10:00etan hasiko dira, pilota eskolako gazteen joko garbiko partidarekin. Ondoren, 11:00ak aldera,

errebote partida jokatu dute Behar-Zana eta Donibane Lohitzu-neko Luzeaz Gazte taldekoek. 14:30etan bazkaria egingo dute elkartean, 30 euroren truke.

Pilota partidak

Bihar 21:15ean hasita Amasako pilotalekuan jokatu duten Behar-Zanako pilotariak: Iraola-Nazabal kadeteak eta Ordozgoiti-Inza jubentilak. Etzi, 11:00etan hasita, Otaegi-Artaza kadeteak lehenengo eta Joxe Mari Aranburu seniorra ondoren ariko dira.

Laburrik

Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean

ANOETA » Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean 16:00etatik 18:00etara. Beraz, KZgunea goizeko arratsaldean egongo da zabalik, hau da, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Tolosatik Berastegira doan errepidean lanak

TOLOSALDEA » Foru Aldundiak Tolosatik Berastegira doan GI-2130 errepideko seinale bertikalak berrituko ditu. Lanak egiteko aurrekontua 583.391,91 eurokoa da eta epea bost hilabetekoa.

Eskertza

ESKERTZA

CARMEN ZUBIZARRETA IRIZAR

(Santos Jauregiren alarguna)

Azaroaren 20an hil zen, 79 urte zituela.
-Goian bego-

Haren seme-alabek, bilobek, anai-arrebek eta gainerako ahaideek oso eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenueneti eta baita hiletara etorri zineten guztioi ere.



ORDIZIA
2007ko azaroaren 29a

«Ez adiorik, ez agurririk, gure bihotzean izango zaitugu beti»

Tolosako eta Ordiziako sendiak



Urdapilleta etxea eraberritu dute Seaska Haurreskolaren egoitza izateko. I. GARCIA

Seaska Haurreskola berria inauguratuko dute etzi

Villabona » Urdapilleta etxe eraberrituan dago Seaska Haurreskola; egun 51 haur daude matrikulatuta bertan

IMANOL GARCIA

Urriatik dago martxan Seaska Haurreskola Urdapilleta etxe berri-tuan. Inaugurazio ofiziala, baina, etzi goizean egingo dute. Eraldaketa handia izan du etxeak. Egun 51 haur daude matrikulatuta, baina 40 dira joaten direnak. Urtarrilean berriro irekiko dute matrikula epea eta ziurrenik haur gehiago izango dituzte hil horretatik aurrera. Guztira bederatziz hezitzaile daude bertan lanean.

Nekane Querejeta koordinatzaileak azaltzen duenez, «lehen Seaska Haurreskola hiru eraikinetan sakabanatuta zegoen. Orain denak batera gaude eta horrek lana asko erretzen du». Eraikina prest badago ere, oraindik zenbait material iristen ari zaizkie eta hezitzaileak pixkanaka guztia atontzen ari dira.

Sei geletarako prestatuta dago



Psikomotrizitate gela lehenengo solairuan dago. I. GARCIA

Seaska Haurreskola, hiru 0-1 urte tarterako eta beste hiru 1-2 urte tarterako. Beharregatik, baina, 0-1 urteentzako lau gela atondu dituzte. Etxearen kanpoan igogailua eraiki dute eta parke bat egin dute haurrak kanpora atera eta bertan jolastu ahal izateko.

Inaugurazioa

Seaska Haurreskolaren inaugurazio ofiziala 11:00etan hasiko da. Txan Magoak ikuskizuna emango du Txistulari Plazan (eguraldi txarra egin ez gero Gurea Antzokian). Ondoren, 12:00etan, hasiko da ekitaldia.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta
Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Sasiainek hiru domina lortu zituen Espainiako 17 urte azpiko txapelketan. HITZA

Igor Sasiainek bere seigarren txapelketa irabazi berri du

Kirola » Espainiako 17 urte azpiko eta Gipuzkoako txapelketetan emaitza onak lortu dituzte Danena Olaederrakoek

HARRIET BELLOSO

Arrakastaz beteriko egunak izan dira Danena-Olaederra Halterofilia taldearentzat. Ansoainen izandako Espainiako 17 urte azpiko halterofilia txapelketan Igor Sasiain Espainiako garaile izan zen 77 kiloko kategorian, eta Zarautzen antolatuta zen Gipuzkoako txapelketan, taldekako eta banakako sailkapenean lehenengo postua lortu zuten Villabonakoek.

Domina ugari

Espainiako txapelketa lau kategori desberdinetan banatzen da, eta guztietan Danena-Olaederrako pultsulariak zeuden. 56 kilo kategorian, Iker Hernandezek zilarrezko domina lortu zuen arrankada modalitatean. Bi denbora modalitatean kale egin zuen hiru altxaldi txar egin eta gero.

77 kilo kategorian, Igor Sasiainek Espainiako txapelketan sailkatu zuen 2 urre (arrankadan eta olinpiko osoan) eta zilarra (bi denboratan) lortuz. Mutilhonek lortzen duen 6. txapelketa da 16 urterekin. 2005ean Espainiako Teknika, Espainiako Sub-15 eta Sub-17 txapelketak irabazi zituen, 2006ean Espainiako Sub-15 eta Sub-17 kategorietan garaipena lortu zuen berriz eta aurten, Sub-17 ko garaile bilakatu da hirugarren aldiz.

85 kilo kategorian, Mikel Quintana bigarren sailkatu zen 3 zilar lortuz. «Oso ondo» aritu zen txapelketa honetan. 94 kilo baino gehiagoko kategorian Julen Intxausti laugarren postuan sailkatu zen eta Jokin Urkizu, berriz, 5. postuan. Bi pultsulari hauek «asko saiatu ziren eta emaitza onak» lortu zituzten.

Gipuzkoa mailan nagusi

Azaroaren 17an, Zarautzen, Florian Simonen Omenezko Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa, jokatu zen. Bertan Olaederrako mutilak beraien nagusitasuna erakutsi zuten.

Taldekako sailkapenean lehen eta hirugarren postuan amaitu zuten Villabonatik joan ziren bi taldeak. Danena-Olaederra A taldea izan zen txapelketaren garailea. Teddy Martinez, Igor Sasiain, Ekaitz Kortajarena, Iker Hernandez, Angel Martin eta Daniel Legorburuk osatzen dute taldea, eta egun guztiaren zehar modu ezin-hobean ibili ziren. Danena-Olaederra B taldea aldiz hirugarren postuan sailkatu zen. Mikel Quintana, Julen Intxausti eta Jokin Urkizu dira taldeko partaideak. Bigarren postua Zarautz K.E taldearentzat izan zen.

Banakako sailkapenean lehen hiru postuak Olaederra taldeko hiru kideentzat izan ziren. Teddy Martinezek urrezko domina lortu zuen, txapelketa paregabea egin ondoren. Igor Sasiainek bigarren postuan amaitu zuen eta Ekaitz Kortajarenak aldiz hirugarrenean amaitzea lortu zuen.

Zine Festa antolatu dute datorren asterako

Tolosa » Abenduko zubian haurrentzako eta helduentzako zuzendutako filmeak izango dira ikusgai, Leidor aretoan

tzako bost film eta haurrentzako lau film izango dira ikusgai Leidor aretoan. *El orfanato*, *Las 13 rosas*, *Urtemuga festa* edo *Iratoxen Erregea* filmak ikusteko aukera izango da.

Prezio bereziak

Zine festarako bi bonu mota egongo dira salgai. Lehenengoa 6 euro balio ditu eta bost film ikusteko aukera ematen du. Bigarrenaren sal-

neurria 5 eurokoa izango da eta film guztietako gaueko saioetara joateko balio du. Sarrera arruntak 4,5 euro balio ditu, baina gazte txartela edo urrezko txartela erakusten bada 3 euro ordaindu behar harko dira. Umeentzako saioen sarrerak 2 euro baliokoak dira.

Bonuak salgai egongo dira datorren ostegunetik igandera bitartean, Leidorreko leihatilan, arratsaldeetan. Igandetik aurrera sarrera solteak besterik ez dira salduko. Gainera, Gazteria Departamentuak bonu batzuk izango ditu gazteentzat prezio merkeagoan. Bonu hauek TGIBan eta Gazte Topagunean salduko dituzte.



TXEKIAR HARIAK

Kultura » 25. Txobxongilo jaialdiaren baitan, 'Txekiar Txobxongilora Leihoa' erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian

Hiru musiketarik. Gotzetan Tolosako nahiz inguruko ikasketetako gazteekin biltza jaioteran da Aranburu jauregiaren erakusketa. Irudian, ikasketak erakusten...

Kondesa hitzartas. Aurretik begiratuha sorgina, eta atzerik, berrik, isapiluan, piritzeza...



Etzaxetis sugu jantziak, 1937. urtekoak dira txobxongilo hauek...

Kultura » Atzo aurkeztu zuten 'Zergatik' obra Kultur Etxean, Donostiako Txobxongilo taldeko kideek

ETXEBAZA

Enkarni Genuak (Donostia, 1942) eta bere senarrak duela 36 urte sortu zuten Txobxongilo taldea. Atzo 'Tintinaj 07' en baitan, Zergatik izeneko beraien azken lana aurkeztu zuten. Orotara, haurrei zuzendutako hiru saso eskaini zituzten, Kultur Etxean.

Zel in da atzo eskaini zuten 'Zergatik' antzezlanaren istorioa argumetua?
Guk atzika gisa Txanogorritzen irupina hartu dugu, lertketari-lichat egileko. Izan ere, denek dugu bezala, Txanogorritzen amona basson bizi da, gaizki dago eta osotasun gaiturik. Eta alba, hori zergatik? Ora honetako gure eta ameei buruko min jarri nahi diegu, aiton-amon batzuen bakardasun delako eta. Hori beraz hitz egiten dugu. Izan ere, aiton-amon batzuk oso ongi bizi dira, beraien Txanogorritto partikulara eskotan josten delako. Baina, gaur egun, gero eta gehiago bizi zaitez baxa, ariskua daukazu bakardade horretan bizitzea.

«Obra bat estetiko oso polita izan daiteke, baina haurrak harrapatzea lortzen ez badu, ez du balio»

ENKARNI GENUA » Txobxongilo taldeko zuzendaria

Txobxongiloen istorioa eta jupinek, umearan gogoeta piztu behar daiteke leste al dugu?
Guk, gure obra gurtzetan neska-mutuek galdere asko egiten dituzte. Esaterako: lamina asko gertatzen al zaizkigu oraindik Euskal Herrian? Larra denon etsea al da? Kana gurtzik bezalaki al dira? Hori izan da gure usteare gaur. Gainera, aurretiko Durangoko azolako liburu bat argitaratu dugu. Hemen, gure galdere guzti horiek plazaratu ditugu. Eta bertan azalduko dugu ere, nola erantzun ditugun. Moralajea ez da niri gustatzen zakin hitza, baina gure sasoetan kezka bat sortu nahi diegu ikusleei. Hori garrantzitsua da guretzat. Obra batek, alderdi estetiko eta saso diti. Testu horretan guk beti zerbait esan nahi dugu, beti ere modu arin batean, inor nekatu gabe.

Zer ematen du lan gehien, alde estetikoak, edo istorioa sortzeak?



Guretzat istorioa oso garrantzitsua da, hori baita antzezlan gurtien oinarria. Testuak ez badu ondo funtzionatzen, nolabait, erakin horietarako ariskua dago. Guretzat, ez du balio. Alde batek, kontatzen duzuna dago, baina besteak, kontatzeko modua bere. Kontatu hartu behar da ere, gure publiko onenak haurrak direla, 3 eta 8 bitarteko gazteak. Horregatik, 50 minutu umeei horet harret gure gurtzetan lortu behar dugu.

Gaur egun, teknologia berriekin erregioa piztu dituzten, orerzaldak haurrak harret zeureganatzeak?
Bai, baina gurtetan dena da haurtzaro murriztu egina dola. Hasi ginen, 12-13 urteko haurrak ere etortzen ziren txobxongiloak ikustera. Baina gaur egun, 13 urteko beste kezka batzuk dituzte. Gainera, penagarria da, izan ere, hore ere mu bat geratu da non ez diren ez

haurrak on gurtzek ere. Hala, antzerki munduan alboratu xamar gurtatu dira. Baina, txikiak berdin berdin interesatzen zaie. Txobxongiloen mundu hau, bizi dugu gaurta bat baita, zuzeneko.

Zel in da atzo eskaini zuten 'Zergatik' antzezlanaren istorioa argumetua?

Orain arte, haurtzako saioak bakarrik eskaini izan dituzte, noiz pentsatu al duzue haurtzako saioa ere egitea?

Gaur egun, zer moduz dago txobxongiloen mundu Euskal Herrian?

Nahiko indartsu dagoela esango nuke. Duela hiru hilabete inguru Txobxongilo eguna osatu zen Getxon eta 14 talde bildu ginen. Horietako batzuk hasiberriak ziren, besteak urteak zeramatzanak, baina hor gurtu da, izan ere, hore ere mu bat geratu da non ez diren ez



24.000 urte ditu Txobxongo taldeak zuten txobxongilo hauek...

G

Abenduak 1

ORDIA, HAZIA

Abenduak 2

Abenduak 3

Abenduak 4

Abenduak 5

Abenduak 6

Abenduak 7

Abenduak 8

Abenduak 9

Abenduak 10

Abenduak 11

Abenduak 12

Abenduak 13

Abenduak 14

Abenduak 15

Abenduak 16

Abenduak 17

Abenduak 18

Abenduak 19

Abenduak 20

Abenduak 21

Abenduak 22

Abenduak 23

Abenduak 24

Abenduak 25

Abenduak 26

Abenduak 27

Abenduak 28

Abenduak 29

Abenduak 30

Abenduak 31

hitza

Euskararen eguna

3 Abenduak

Antzerkia

LEDA H. ARBETAN Zentil gara antzerki taldeak

Hamaika

Kulturaren dantza

17:30

Santxa doan

5 Abenduak

Afaria

Uzhere sagardotegian

21:00

Ondoren txikiak

Santxa sagar

Batza liburuak

Trinpatxo kafetegian

Galtzerdiak argitaratu

Prezioa: 27 euro

Erroblekione: Abenduak 1

Hitzakuntza

TOLOSAKO KULTUR ETXEAN

19:30

Hitzakuntza dibertitate berriaren eragina

hizkuntza gurtzuen normalizazio prozesuan.

Hizlaria: Xabier Alerdi

BO SPEEL & Magnussen

Euskarri Behatzaile zuzendaria

HAS 2023az geroztik.

Sentimientuak

Hizkuntza Erabilera II

Hizlaria: Joneba

Antzerki taldea Aranburu

Hirukoito Hizkuntza

Normalizazioaren Arduradun

Teknikak

Galtzerdiak

Igandean Donostiako 30. Maratoia izan zen eta Tolosaldeko korrikalari askok parte hartu zuten: emakumeetan lehenengoa Mertxe Egiguren tolosarra izan zen, sailkapen orokorreko bederatzigarrena, eta mutiletan, berriz, Joseba Jauregi, hogeita bigarren eginez: korrikaldi luzeak nahiago dituzte eta korrika egiten berandu hasi ziren, baina emaitza onak lortuz.

«Maratoia zer zen ikusi nahi nuen»

MERTXE EGIGUREN › Korrikalaria

Tolosa › Zortzi urte igaro dira kirola egiten hasi zenetik, bigarren semea kokortu zenean, eta korrikari heldu zion

N. URBIZU

Donostiako maratoian emakumeen sailkapen nagusian 9. egin zuen eta Tolosaldeko lehena izan zen Mertxe Egiguren (Bidania, 1965). Tolosan bizi da aspalditik, eta lasterketa hau erronka zela esan du: 3 ordu eta 23 minutu behar izan ditu 42 kilometroko egiteko. Duela 8 urte hasi zen korrika egiten.

Nolatan egin duzu maratoia?

Iaz Behobia egin nuen eta ondo atera zitzaidan, eta maratoia zer zen ikusi nahi nuen. Proba egin nahi nuen eta txukun egin: azkenean ondo atera zait.

Espreki prestatu duzu orduan?

Bai, bai. Prestatzea ia gogorragoa izan da eguna bera baino. Askok behar da entrenametuatarako: lau hilabetetan ia astero 6 egun aritu naiz korrika. Igandean 2 orduz eta astean zehar ordu batetik gora.

Norbaitek prestatu zaitu?

Lagun batek jarraibide batzuk jarri zizkidan eta horrekin moldatu naiz. Urtean zehar, dena dela, beti ibiltzen naiz korrika, baina jakinda horrelako lasterketa bat prestatu behar duzula extra batzuk egin behar dira.

San Silbestren oso ondo, Beho-

bian Tolosaldeko lehenengo emakumea iaz... Denborak hobetzea gustatzen zaizu?

Ez, ez. Bakarrik aurtengoa erronka zen, ez nuen maratoia ezagutzen, eta txukun egin nahi nuen. Probatu nuen: alde batetik beldurra nuen, 42 kilometro direlako eta horiek denboran dosifikatzea zaila da. Oso gustura egin dut, lagunak nituen laguntzeko, ilobak, eta denon laguntzarekin lortu dut gauzak txukun egitea.

Bezaz, pozik?

Oso pozik. Lasterketan beharaldia noiz iritsiko zain nengoan, beldur horrekin. Ez nuen sentitu, eta horregatik uste dut oso ondo egin nuela eta ez nuen hainbeste sufritu. Gainera, horrenbeste jende ikusteak, lagunak, familia... Horrek sekulako poza eta emozioa sentituarazi zizkidan.

Hiru ordu eta erdi ia korrikan, zer pasatzen zaizu burutik?

Hainbeste jende ikusi, familia... Oso «arina» egin zitzaidan. Kontzentrazio asko behar da eta despistatu egin nahi nuen: lortu nuen, eta 5 kilometro falta zirela ilobak abisatu zidan: orduan oso gutxi falta zitzaidala pentsatu nuen, oso azkar pasa zitzaidan.

Laguntza ere izan zenuen?

Bizikletarekin erabat aritu zen Pello laguna, eta ilobak eta beste lagun batek ere ondoan korrika egiten izan nituen, txandaka, oso ondo zainduta eta mimatuta egon nintzen.



N. URBIZU

«Nik irtetea posible dut, zorionez ez baitut lesio edo arazorik»

JOSEBA JAUREGI › Korrikalaria

Tolosa › Korrika egitea aisia da berarentzat, eta kanpoan korri egiten duenean turismoa egiteko ere aprobetxatzen du

NEREA URBIZU

Joseba Jauregi (Tolosa, 1977) hainbat maratoi eta herri krosetan aritzen da afizioz, bere kasa. Donostiako maratoia 2 ordu eta 33 minututan egin zuen, Tolosaldeko lehen gizonezkoa izanik. Duela 3 urte hasi zen korrika serioago egiten.

Donostiakoaz gain beste askotan hartu duzu parte.

Tolosan, Behobian, Hondarribian, Ataunen... Kanpoan ere bai, Parisen, New Yorken lehengo urtean...

Afizioz New Yorkera?

Hemen bidaia eta aisia aprobetxatu behar dira! Oporrak eta aisialdi berean egiten saiatzen naiz.

Maratoiak ala herri-krosak?

Berez nahiago dut maratoia, erritmo aldetik mantxoagoak dira. Herri krosetan segituan hauspoa

bete-betean izan behar duzu. Maratoian dedikazio eta erresistentzia behar da. Ez da bakarrik korrika egitea, gorputza ere landu behar baita, gimnasioan, esaterako. Askok gozatzen dut maratoiak egiten.

Zenbat entrenatzen duzu?

Astean bospasei egunez aritzen naiz, egunero ordu eta laurden inguru korrika egiten, eta falta ezin dena, egunero-egunero 20 minutuz-edo luzapenak. Oso garrantzitsua da egitea. Erritmo honetan zerbait berezia prestatu baino 2 hilebete aurretik, bestela ez dut horrenbeste egiten.

Hurrengo erronka zein da?

Hemendik 3 astetara Gasteizko maratoi erdia izango da eta hara joango naiz. Martxoan Erromara joango naiz maratoia egitera, baina lasai egiteko asmoarekin, horretan ere turismoa egitera.

Gustuko duzun lasterketa?

Maratoiak diren guztiak: Behobia gustuko dut baina ez bereziki. Azken batean karrera askoz gehiago daude. Jendeak ematen du bakarrik Behobiaz ulertzen duela.

Gogor entrenatu duzu?



N. URBIZU

Denak prestatzen ditut ondo eta ondo antolatuta. Postuak ez dit axola hainbeste, denoi gustatzen zaigu aurrean egotea baina neure buruarekin gustura bukatu nahi dut, besterik ez. Irten ahal izatea askotan zaila da, eta nik parte hartzea posible dut, zorionez ez daukat eta lesio edo arazorik. Irtetea soilik, eta bukatzea lorpen bat da. Bakoitzak bere maila eta bere dedikazioa dauka, eta bere mugak.

S Soka motzean

«Bigarren egunerako txurrera deitzen hasi zitzaizkidan»

IDOIA GOIKOETXEA ›

Ostalaria

ESTI ZEIZA

Berriro atek ireki ditu Beotibar ondoko txurro saltokiak. Idoia Goikoetxeak (Gaztelu, 1969) dihardu bertan lanean.

Zein da txurro gozoak egiteko sekretua?

Sekreturik ez dauka. Lehendabizi masa egin behar da, gero, olio berotu, eta frijitu.

Eguneko zein une da onena txurroak jateko?

Zerbait gozoa jateko gogoa duzun edozein une. Hala ere, batik batik arratsaldeetan etortzen da jendea.

Zein da txurroen laguntailerik onena?

Jende gehienak txokolaterekin hartzen ditu, hala ere, kafearekin hartzen dutenak ere asko dira.

Gustatzen al zaizkizu txurroak?

Ez zaizkit gehiegi gustatzen, ez nintzateke erostera joango.

Gogoratzen al duzu hemen zegoen aurreko txurro saltokia?

Roberto Ruizek hemen lanean hasi nahi al nuen galdetu zidanean, etorri zitzaidan irudia zen, hemen barruan egoten ziren bi ahizpen, atzean gozokiak zituztela, eta horietako baten senarra, txurroak egiten.

Aurreko saltzaileak txurrerak bezala ezagutzen ziren.

Niri ere bigarren egunerako txurrera deitzen hasi zitzaizkidan. Baina ez dit grazia gehiegirik egiten, gauza gehiago ere badaude hemen.



INOIA TERRADILLOS

Zer ote daukat?



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Badira hiru aste iztar txokoko arazoak hasi zirela eta oraindik ez dakigu zer izan daitekeen. Zenbat aldiz galdetu ote diot neure buruari: «Zer ote daukat?». Ba erantzunik gabekogaldera da hori, hamaika proba egin dizkidate eta inon ez da ezer agertzen; ez da inongo lesiorik agertzen. Alde batetik ona da ezer larria ez dirudielako, baina zergatik naiz min, zein daminizatearen arrazoia. Honelako egoeretan burua martxan jartzen zaio bati eta mila buelta ematen dizkiozu gauzei; mila buelta ezertarako, ez baita ezer konponetzen. Lehenbailen konponduko denaren esperantza mantendu izan dut beti baina ez nuen espero hainbesteluzatukozenik, eta pasatako denbora pasata, ia lehenengo eguneko sentazio berak izateak oso atsekabetua nauka. Ez da erra-

za baina laister pasako denaren ideia mantendu beharko dut, okeragoa ere izan zitekeela pentsatuz apur bat animatuz.

Kirol alorrean berriz, aste txar hau borobiltzeko, emaitza txarra zein gogorra jaso dugu Ipuruan. Herculesen aurkako partidari 0-3 galdu genuen. Ez ginen ongi ibili eta bereiek talde indartsua dutenez, ederki aprobetxatu zituzten gure akatsak. Agian ez genuen honelako emaitzarik merezi baina merezimendu osoz irabazi zuten. Kontuak kontu eta partida galduta, sailkapeneko egoera korapilatu egin da eta jeitsiera postuetatik hiru puntura baino ez gaude. Ez da kezkatzeko egoera baina bai adi egoteko, badakigu partidua pare bat irabazita berriro ere goruntza egingo dugula, baina galduta gauzak oker daitezke. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Eibargarela eta talde honen helburua argi eduki behar dela, maila mantentzea hain zuzen ere. Beste pentsamendu bat duena oker dabil, 50 puntu lortzea da helburua. Hau erraz esaten da baina lortzea kosta egingo zaigu. Horregatik, guretzat beste batzuentzat liga irabaztea adina balio du Eibar Bigarren Mailan mantentzeak.

«EAJk inposaketa egiten du AHTrekin»

Politika » Tolosaldeko ezker abertzaleak Anoetan egingo diren manifestazio eta herri galdeketaekin bat egiten duela azaldu du

A. IMAZ

Tolosaldeko ezker abertzaleak prentsaurrekoa eskaini zuen herenegun Tolosako Kultur Etxean, AHTren proiektuaren aurkako jarrerara azaltzeko eta Anoetako herriarrei «babesa» emateko.

«EAJk erantzunkizunak»

Abiadura Handiko Trenaren «aurka» agertu ziren ezker abertzaleko kideak, azpian dituen «interesak» salatzearekin batera; «Euskal Herria zeharkatu nahi duen proiektu txikitzaile honek, Tolosaldeko herritarro zuzen zuzenean eragiten digu. Proiektu honek mugitzen dituen interes ekonomiko erraldoiez gain, politiko eta sozio-kulturalak ere gehitu behar zaizkio».

Ezker abertzaleak EAJ egiten erantzule, «AHT aurrera eramane nahi duen EAJk erantzunkizun zuzenaren ditu, kaltetuak garen herritarrekin eta herriekin. Proiektua erabat ezkutuan eta

isilean eman nahi dute, hitz bakar batez, inposaketa egin du EAJk AHTrekin». Honen aurrean, «konpromisoak berresten» zitzutela aipatu zuten, «ezker abertzaleko kide garen heinean, Euskal Herria eta Tolosaldea ezkerretik eraikitzeko». Ondorioz, «etzi Anoetan egingo den manifestazioarekin bat egiten dugu eta bertara gerturatzearen aldeko deia luzatzen dugu eskualde guztian».

«Herri galdeketa ezekoak»

Abenduaren 2an Anoetan egingo den herri galdeketa ere hizpide izan zuten ezker abertzaleko kideek, «ezezko borobila» eskatzeaz gain, herritarrei «babesa» eskaini zuten. «Anoeta herria abenduaren 2an egingo duten herri galdeketa gure babes osoa erakutsi nahi diogu. Hor arkituzten da herrien izaera eta nortasunaren gakoa. Azken batean, hori baita behar ditugun herri eredu biderako tresna».

Azkenik, «informazioa ezkutatzeko eta herritarren iritzia aintzartatzeko hartzen ez dituztenak salatzearekin batera, herri mugimendu eta herritarren eskuetatik datozen informazio kanpainak zein galdeketa txalotzekoak direla» aipatu zuten Tolosaldeko ezker abertzaleko kideek.



Herenegun burutu zen udalbatza osoaren ohiko bilkura irudia: Korporazioa, EAEko kideak eta Udal langileak. A. IMAZ

Eztabaida eta gaztelania nagusitu ziren herenegun udalbatza osoaren bilkuran

Ibarra » Udal langileen «aparteko ordu bereziak ezabatuak» gelditu ziren, Mila Garciak (EA) bakarrik bozkatu zuen aurka

ASIER IMAZ

Bilkura amaitsu ondoren, udaletxe-ko pleno aretoan egon zen herritar batek honela zioen: «Ez da erraza hemen gertatzen dena sinestea. Herritar guztiak ikusi beharrekoa da hemen gertatzen dena. Plenoak irekiak dira eta herritar guztiak hurrengora etortzeko esango nieke, euren ordezkariak egingo dutena ikusteko, beste ezertarako ez bada ere».

Ateak irekita eta gaztelaniaz

Herenegun 18:00etan hasi zen Ibarra osoaren udalbatza osoko ohiko bilkura. Alde batean, Udal Korporazioa (EAJ, EA, EB-Aralar eta PSE-EE) eta bestean, publikoari dagokion lekuan, hauteskundeetan «legez kanpo utzi izan ez balitu, ANV-EAEk Udalen izango lituzkeen» bost zinegotziak, udal langileak eta herritarrak.

Pleno aretoko ateak bilkura guztian irekiri egon ziren, bizkarzainek ez baitzuten atea ixten utzi. Horretaz gain, batzarra gaztelania hutsean egin zen, Aitor Garmendiak (EAE-ANV) udal langileen eskariarekin bat egiten zuen puntua irakurri zuen arte. EAEren iritzia ulertu ez arren, (euskaraz hamaika zinegotzitik lauk bakarrik baitakite), ez zen gaztelaniazko itzulpenik eskatu. Honen inguruan galdetuta galdera eta eska-

rien atalean, «itzultzaile gaixodago» erantzun zuen Chelo Romeo alkateak irrifarre artean.

Mozioen harira eztabaida

Gai-zerrendarekin hastean, eztabaida hasi zen bi mozioen harira. Batasunaren Mahai Nazionalaren atxilotetaren inguruan, EAEk urriaren 26ean mozioren bat sartu zuen udaletxean. Urriaren 30ean egin zen Bilkuran, Korporazioko kideek eta Udaleko idazkariak, mozioren ez zutela jaso esan zuten. EAEko kideek mozioren udaletxe-ko ziguilarekin erakutsi zuten, urriaren 26a azaltzen zelarik zigiluan.

Herenegun egin zen bilkuran, ez zen Batasunaren Mahai Nazionalaren inguruko mozioren agertzen gai zerrendan, ezta ere azaroren 16ean euskal selekzioaren inguruan EAEk sartu zuen mozioren ere. Gertatua «lotsagarria» zela salatu zuten EAEren jarraitzaileak. Chelo Romeok aldiz, horrelakorik berriz gerta ez zedin neurriak hartuko zituela azaldu zuen.

Irtenbide bezala, premiazko gaien modura sartu zituzten gai zerrendan. Batasunako Mahai Nazionalaren atxilotetaren inguruan puntuari dagokionez, EAJ, EA eta IU-Aralarrekin Arrasaten alderdi hauek atxiloteta guztien inguruan adostu zuten moziorekin bat egin zuten.

Bigarren mozioren, euskal selekzioaren inguruan istituzioen babesa eskatzen zuena, PSE-EEren aurkako bi botorekin onartu zen.

Udal langileen lan baldintzak

Gai-zerrendaren hirugarren puntua, Udal langileen lan baldintzei zegokiena zen: «Udal plantilako

langileentzat onuragarri diren baldintza ekonomiko eta sozialak, Udalhitzen sartzekoak». Honen barnean, «aparteko ordu bereziak ezabatuak geratzen direla» aipatu zuen Chelo Romeok.

Bozketan egin aurretik, Aitor Garmendiak, EAEren izenean iritzia eman zuen gai honen inguruan. Lehenik langileei eskerrak eman zizkien ANV-EAEekin elkartu zirelako, «langileen aldetik errekonozimendu bat suposatzen duelako EAEko ordezkariaren ganako. Noizbait udaletxe-ko zinegotziak ere jarrera bera izatea espero dugu». Gaiari dagokionez, «zenbait enpresari zakurren modura, langileek urteetan eduki dituzten lan eskubideak inposaketaren bidez zerrendan, ezta ere azaroren 16ean euskal selekzioaren inguruan EAEk sartu zuen mozioren ere. Gertatua «lotsagarria» zela salatu zuten EAEren jarraitzaileak. Chelo Romeok aldiz, horrelakorik berriz gerta ez zedin neurriak hartuko zituela azaldu zuen.

Bozketan, alderdi guztiek gaia aurrera ateratu zuten, EB-Aralarreko zinegotziak abstentzioa bozkatu zuen iformazio ezagatik eta Mila Garcia (EA) izan zen «Udal langileen aparteko ordu berezien» ezabaketaren aurka bozkatu zuen bakarra.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldari eta zerbitzaria.** Sagar-dotegirako, sukaldari eta zerbitzari lanetarako pertsona bat behar da. 660 65 43 17.



13°
8°

GOIZA	OSTARTEAK
ARRATS.	OSTARTEAK
BEROENA	15°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Sleepers musika taldea Bonberenean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolako 40. urteurrena dela-eta antolatutako du-ten jaialdirako txartelak salgai jarri dituzte gaur eta bihar Raku, Orbela eta Ikatzeta tabernetan.

■ **Leitza.** Koldo Amestoy kontalaria *Harriola Harriola* helduentzako ikuskizuna emanen du liburutegian 18:30ean.

■ **Tolosa.** Titirijai: Errusiako Victor Antonov-en *Harrien zirkoa* Kultur Etxean 18:00etan; Txekiako Naive theatre-ren *Juanito eta babarrun majikoa* Gorosabalen 18:00etan eta Kataluniako Teatro Deja vuren *Pin ups* Kasinoan 22:30ean.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Hedapen urriko hizkuntza garapena eta euskal esperientziari buruzko mahai ingurua izango da, Haur Liburutegian, 19:30ean. Txile, Bolivia, Ecuador eta Guatemalako esperintziak ezagutzeko aukera izango da.

■ **Ibarra.** Inmigrantearen integrazioaz hitzaldia Ufredo Moraren eskutik Kultur Etxean 19:30ean, Kultur Truke Hamabostaldian.

Mendia


■ **Tolosa.** Alpi Mambo ekspedizioaren *Torre sin nombre* eskaladaren proiektzioa Oargi elkartean 19:30ean, Mendi Hamabostaldian barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Euskal disko eta liburuen paradisu

TOLOSA ● Durangoko Azokaren atarian, Tolosa euskal liburu eta diskoen paradisu bilakatu da egunotan. San Frantzisko ibilbidean atondu dituzte postuak, ibiltarien gehienen arreta piztuz. Euskadiko Liburu Azokan Batzordeak antolatzen duen azoka abenduaren 2ra arte egongo da, igandearrekin, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Bisitatze-ko aukera bada oraindik, beraz... i.t.

A Agurrak



Urte askoan!

Idoia Eizmendi (18 urte).

Txikitik bezain bihurria jarraitzen duzu izaten.

txokoa
h

BRUESA GBC
CB Villa de los Barrios

OSTIRALA

AZAROAK **30 - 20:30**

ILLUNBE

4 sarrera pare

zozketatu ditugu!

Hauek dira irabazleak:

- Pablo Otegi Larrarte (Zizurkil)
- Aiztondo Zerbitzu Mankomunitatea (Zizurkil)
- Errekalde Taberna (Irura)
- Nati Murua Artola (Alegia)

Sarrerak Tolosako HITZAren bulegoan izango dituzue!

HITZAren harpidedunentzat abantailak

denda
h

Ametsetarako hitzak

ipuinen majian izkutatzen den euskal idazleen liburua... **15 €**

eskura ezazu

Durangoko Azokan,
HITZAren postuan
(Barrenkale, 73)



LIBURUAREN
AURKEZPENA
abenduaren 6an
16:00etan
Durangoko Azokako
Elkartegian